

## **EUSKARAZ SORTUTAKO FILMAK ETA ANTZERKI LANAK BESTE HIZKUNTZETARA AZPIDAZTEKO DEIALDIA\_2021**

Etxepare Euskal Institutuak bere xedeen artean du euskal kultura ezagutzera ematen eta hedatzen laguntzea, bereziki euskaraz sorturiko kultur eskaintza sustatuz eta lagunduz. Xede horretan aurrera egin ahal izateko, ezinbestekoa da hemen euskaraz sorturiko lanak beste hizkuntzetara itzultzea. Hori dela eta, 2021ean euskarazko zinema lanak eta antzezlanak beste hizkuntzetara azpidazteko eta goititulatzeko deialdi hau kaleratu du.

### **OINARRIAK**

#### **1. Xedea**

Deialdi honen xedea da jatorriz euskaraz idatzi eta estreinaturiko filmak eta antzezlanak atzerriko hizkuntzetara azpidazteko/goititulatzeko laguntzak ematea, obra horiek nazioartean sustatzeko xede nagusiarekin bat.

#### **2. Eskaerak aurkeztea**

Euskararen eremu geografikoko ekoiztetxeek, banatzaileek, edo antzerki konpainiek aurkeztu ahal izango dituzte eskaerak.

Beharrezkoa izango da enpresa eskatzailea haren diziplinari dagokion paragrafoan IEZn altan egotea, eta baita Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Ogasunekoak egunera izatea, zein Diru Laguntzak jasotzeko legezko beste eragozpenik ez izatea.

#### **3. Baliabide ekonomikoak**

Etxepare Euskal Institutuak gehienez ere 8.000 euro bideratuko ditu deialdi honetara.

Eskatzaile bakoitzak eskaera bakarra egingo du, eta gehienez bi hizkuntzetarako azpidatziak egiteko proposamenak onartuko zaizkio deialdi honen bidez.

#### **4. Modalitateak**

##### **4.1. Zinemako lanen azpidazketa.**

###### **Bete beharreko baldintzak:**

- a) Honako ikusentzunezkoak azpidazteko eskaerak onartuko dira: fikziozko edo animaziozko luzemetrai eta laburmetraiak, eta dokumentalak.

Ez dira onartuko telesailak, hezkuntza alorrerako ikusentzunezkoak, arte bisualetako produkzio artistikoak, eta ezta helburu komertziala duten promozio ekoizpenak ere.

b) Eskatzailearen ibilbide profesionala akreditatzeko, gutxienez 2 zinema lan estreinatuak dituela frogatu beharko du.

c) Filmak jatorriz euskaraz idatzia izan behar du, eta Eusko Jaurlaritzaren ekoizpenerako laguntza jaso duten filmen kasuan, zirkuitu komertzialean 2019ko abenduaren 31 aurretik estreinatutakoa izan behar du. Laburmetraien kasuan gutxienez nazioarteko 2 jaialditan parte hartutakoa izan behar du.

d) Gehienezko kopuruak honakoak izango dira:

\*Luzemetraiak: 1.000€ (BEZ barne) (itzulpenaren kasuan 0,014 euro izango dira karaktereko).

\*Laburmetraiak: 500€ (BEZ barne) (itzulpenaren kasuan 0,014 euro izango dira karaktereko).

- Itzulpen eta txertaketa gastuak aurkeztu ahalko dira.

e) Hizkuntza honetarako azpidatziarentzako beste laguntzarik jaso ez izana Eusko Jaurlaritzaren ekoizpeneko laguntzen bitartez zein beste erakunde publikoen laguntzen bitartez.

f) Azpidatziak euskara zein gaztelera ez diren edozein hizkuntzetara egin ahal izango dira.

#### **4.2. Arte Eszenikoetako lanen goititulazioa.**

##### **Bete beharreko baldintzak:**

a) Jatorriz euskaraz idatzi eta zirkuitu komertzialean estreinatutakoa izan behar du.

b) Eskatzailearen ibilbide profesionala akreditatzeko, gutxienez 2 antzezlan estreinatuak dituela frogatu beharko du.

c) Gehienezko kopurua 1.000 (BEZ barne) eurokoa izango da (itzulpenaren kasuan 0,014 euro izango dira karaktereko).

- Itzulpen eta txertaketa gastuak aurkeztu ahalko dira.

d) Hizkuntza honetarako goititulaziorako beste laguntzarik jaso ez izana Eusko Jaurlaritzaren zein beste erakunde publikoen laguntzen bitartez.

e) Azpidatziak euskara ez den edozein hizkuntzetara egin ahal izango dira.

## 5. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

a) Eskerak aurkezteko epea 2021eko maiatzaren 10ean zabalduko da eta diru zuzkidura amaitzen denean amaituko da. Epe horren amaiera Etxepare Euskal Institutuaren webgunean jakinaraziko da.

b) Eskabidea posta elektronikoz bidali beharko da [etxepare@etxepare.eus](mailto:etxepare@etxepare.eus) helbidera, honako dokumentazioarekin batera.

1. Eskatera-orria
2. Filmaren edo antzezlanaren fitxa teknikoa eta ustiapen eskubideak.
3. Enpresaren kultur ibilbidea.
3. Itzulpena eta azpidazketa / goititulazioa egiteko proposatzen den aurrekontua.

c) Eskerak aztertu ondoren, 5 laneguneko epea izango da proposamenak izan ditzakeen akatsak zuzentzeko.

d) Eskerak osatutzat jotako hurrenkeran zerrendatuko dira.

## 6. Laguntzak emateko prozesua

Eskerak osatutzat jotakoan, Etxepare Euskal Institutuak eskaera onartutzat edo ez onartutzat emango du hilabeteko epean.

Onartutako eskaeren kasuan, fakturaren ordainketa egiteko, eskatzaileak abenduaren 31ra arteko epea izango du itzulpen, azpidazketa, goititulazio eta txertaketa lanari dagozkion faktura Etxepare Institutuan aurkezteko. Bestela, ukatutzat emango da.

Etxepare Euskal Institutuak gastuen egiaztagiriak jaso eta gehienez ere hilabeteko epean ordainduko du onartutako eskaera.

## 7. Azpidatzitako filma/antzezlanaren erabiltzeko baimena

Deialdian parte hartzeak esan nahiko du egileak baimena ematen diola Etxepare Euskal Institutuari deialdi honen bidez itzulitako lana erabiltzeko nazioartean euskal kultura sustatzeko zereginean. Horretarako, filmaren edo antzezlanaren kopia azpidatzi bat Etxepareren esku utziko du. Erabilera hori ez da inoiz izango komertziala.

## 8. Datuen babesa

Deialdi honen garapenean jaso eta tratatuko diren datu pertsonalak (bereziki pertsona fisikoen datu pertsonalak) nahitaez egin beharko dira 2016/679 Araudian (EB) jasotakoaren arabera. Araudi horrek pertsona fisikoak babesten ditu datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio askeari dagokionean.

## **9. Zalantzak eta gorabeherak**

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria izango da organo eskuduna deialdi honen inguruan sor daitezkeen zalantzak eta gorabeherak kudeatu eta argitzeko.